



Poesia-liburua argitara eman du Jon Garmendiak

Aste honetan aurkeztu du liburua urnietarrak. Martxoan, Xabi Solano lagun duela, "Bidasoatik harago" ikuskizuna oholzaratuko du Urnietan / 4-13

AIURRI



ZINE&HITZ

Filmak eta solasaldiak
martxoan

BASTERO Kulturguneko
ekitaldi aretoa

18:30

Sarrera doan

martxoak 3: **Faisaien Irla**
Solasaldia zuzendariarekin: **Asier Urbiet**

martxoak 10: **Laburbira**

martxoak 24: **Itoiz, udako sesioak**
Solasaldia zuzendarietako batekin:
Larrait Zuazo

martxoak 31: **Animo**
Solasaldia zuzendariarekin eta aktore
nagusiarekin: **Alex Tello eta Telmo Irureta**



Ibilgailu handien talka

N1 errepidean, Bazkardo aldean, kamioiaren eta busaren arteko talka izan zen astearte goizean. Ez zen zauriturik izan baina istripuak eragin handia izan zuen trafikoan. Kanpotik begiratuta, oinezkoen begietara, ikusgarria izan da talka. Barrualdean zeudenentzat, aldiz, ezusteko galanta. Udalerrian Udaltzaingoak bideratu zuen nabarmen hazi zen trafikoa.



KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

Elkarbizitza zirkuluak



Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzan Bizikidetzaren positiboaren alde ari dira. EGAPE

Ikasleak ikastetxeko bizikidetzaren kudeaketan inplikatu behar ditugu eskola-giro positiboa sustatzeko. Irakasleak bidean lagun izan behar gaituzte, eta eskolan haien partehartzea erraztu behar dugu. Hori egin ahal izateko, aurtengo, Bigarren Hezkuntzako maila bakoitzean ikasleen Elkarbizitza Zirkuluak osatu ditugu.

Elkarbizitza Zirkuluak gelako eta eskolako bizikidetzaren hobetearren ikasleen partaidetza aktiboa sustatzen duten egitura egonkorak dira. Euren helburua da bizikidetzaren positiboaren eta tratatu onaren garrantziaz sentsibilizatzea, berdinen arteko laguntza sustatzea eta gatazkak modu positiboan ebazten laguntzea, besteak beste.

Ikasturte hasierako Tutoretza eta Proiektu Komunitateko saioetan, "Elkarbizitza Zirkuluak" egitura martxan jartzeko hainbat jarduera egin dira. Egitura horien sorrerak fase hauek izan ditu: sentsibilizazioa, ikasle-laguntzaileen aukeraketa (gelakideek aukeratutakoak), euren prestaketa, egiturak martxan jartzea eta jarraipen bilerak.

Abendutik aurrera, bilera horiek, hilean behin egiten dira maiztasuna handituz beharra sumatzen bada. Bilera horietan parte hartzen du: mailako hautatutako ikasle laguntzaileak, tutoreak, orientatzaileak, eta Ikasleen Ongizaterako eta Babeserako Koordinatzaileak.



Abiatzear da kanpaina berria



Olio-botilak. ERRIGORA

Martxoaren 18ra bitarte izango da Errigoraren Udaberriko kanpaina martxan eta urnietarrek bi bide izango dituzte eskaera egiteko: batetik, webgunean, online aukera erabilia; bestetik, Errigoraren telefono-zenbakira deituta: 848 87 12 23 (09:00-13:30). Banaketari dagokionez, aurrerago emango dizuegu informazio zehatzagoa baina maiatzaren 8an zein 9an egitea aurreikusitako dugu.

Orburutxo eta Zaizuriñe
Errigora omenduko du aurtengo Korrikak. Lasterketari ekiteko hilabete eskas falta denean, Errigorak lasterketan bere ordezkari izanen diren Orburutxo eta Zaizuriñe pertsonaiak aurkeztu berri ditu. Korrikan agerpen berezia izango dute.

Askotariko jarduerak Urnietako Jabekuntza Eskolan

Ireki dute epea, eta online edo Bertan herritarren bulegoan eman dezakete izena

Erredakzioa URNIETA

Honako hauek dira lantegiak eta bakoitzaren xehetasunak:

Korrika egin dezagun

Egutegia: martxoak 10, 17, 24, 31; apirilak 7, 14, 21, 28; maiatzak 5, 12, 19, 26; ekainak 2, 9.
Ordutegia: 18:00-19:30.
Lekua: Kiroldegian.
Hizkuntza: elebiduna.

Clown: bizipenak taula gainean

Egutegia: martxoak 28 eta maiatzak 16.
Ordutegia: 10:00-13:00.

Lekua: Sarobe.

Hizkuntza: elebiduna.

Nutrizio saioa: menopausian ere zaindu gaitzen II

Egutegia: martxoak 23.
Ordutegia: 18:00-20:00.
Lekua: Kiroldegiko boxetan.
Hizkuntza: elebiduna

Oinarrizko brikolaje tailerra

Egutegia: martxoak 21, apirilak 18 eta maiatzak 9.
Ordutegia: 9:00-14:00.
Lekua: Lekaio.
Hizkuntza: gaztelania.



ALDUNDIA

Protokoloaren eguneraketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekin partekatu du indarkeria matxistaren aurrean erantzun publiko instituzionalerako protokoloa eguneratzeko lana. Topaketa horretan parte hartu zuten Jorge Segurado Urnietako alkateak eta Ainhoa Ostolaza Berdintasun zinegotziak. Xedea zehatza da: erantzun koordinatua, komuna eta ikusgarria ematea eraso matxisten aurrean.



POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO PETSIODUNEN MUGIMENDUA DONOSTIA

Pentsioen errebalorizazioa, berehala!



Donostian egin zuten manifestazioa larunbat arratsaldean. EHPM

Eskerrik asko guztioi Donostian izateagatik, eskerrik asko hemen izan ezin dutenei eta baita borrokan jarraitzeko erabakia hartu duzuenoi.

Gaur manifestazio honekin Estatuko Gobernuari eta Kongresuari exijitzen diegu pentsioen berehalako eta behin betiko errebalorizazioa.

Onartezina da 21/2021 Legean xedatutakoak berme nahikorik ez izatea pentsioen errebalorizazioa koiuntura ekonomiko eta sozialaren mende ez egoteko, eta alderdi politiko batzuek eztabaidarako elementu gisa erabili ahal izateko.

Pentsioen iguera gauzatzen zuen Espainiako Gobernuaren Lege Dekretuaren aurkako botoak agerian uzten du PP, VOX, JUNTTS, UPNrentzat bere interes partikularrek

lehentasuna dutela pertsonen bizi baldintzak hobetzearen aurrean. Pentsioen igoera eta ezkutu soziala delakoa indargabetzea da esaten dugunaren froga nabarmenena.

Bestalde, onartezina da Gobernua lege hau betetzeko eta bermatzeko gai izan ez izana. Egia da urtarrileko pentsioak barne hartzen duela igoera, baina gobernuak beharrezkoa dena egin behar du pentsionistengan eta bereziki pentsioarekin hilabete amaierara iritsi ezin diren pertsonengan segurtasun falta, urduritasun eta haserre gehiago ez sortzeko.

Egoera hau onartezina da. Kongresuak hurrengo osoko bilkuran berretsi behar du pentsioen errebalorizazioa eta pertsona ahulenei mesede

egiten dieten neurri sozialak. Horrela ez bada, martxoan mobilizazio gehiago deituko ditugu, beren botoarekin eragozten duten alderdiak salatzeko.

Ez da nahikoa 2026rako pentsioen balioa handitzea, eta hau exijitzen dugu:

Pentsioen urteko errebalorizazioa bermatzea. Galdutako erosahalmena berreskuratzea. Pentsioetan dagoen genero arrakalarekin amaitzea eta gutxieneko pentsioa Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzea.

Eta Euskal Aautonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuak gutxieneko pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataraino osatzea.

Jo ta ke irabazi arte!

"Dendariek hainbat produkturi prezio baxuak jarriko dizkiote"

Salkin-ek Andoaingo Outlet Klean ekimenaren edizio berria antolatu du, ostegunetik larunbatera



Amabi haur eta gazte jantziak, artxiboko irudian. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Marijo Irastorza Salkin elkar- teko dinamizatzaileak eman ditu tokiko merkataritza sustatzeko kanpainaren xehetasunak.

Outlet klean egitasmoa ez da berria, ekimena errepikatzea seinale ona da, ezta?

Bai, halaxe da. Ekimenaren bidez merkatalgunean saldu gabe gelditzen den denboraldiko merkantzia eskaintzen dugu. Kasu honetan, negukoak. Jarduera horren bidez, dendariek hainbat produkturi prezio baxuak jarriko dizkiote. Helburua stock hori gutxitzea da eta, horren ondoren, udaberriko eskaintzarekin has- ten gara martxan.

Zenbat dendarik hartuko dute parte? Zer erosi daiteke bertan?

Denetarik egongo da; arropa, oinetakoak, betaurrekoak, etxe- ko osagaiak, umeen aulkiak eta arropa, liburuak, produktu es-

tetikoak, eta bizikletak, besteak beste.

Eskatzen hasita, eguraldi ona en- kargatu ahal duzue?

Ezin dugu gure kabuz erabaki, baina ateri izatea espero dugu. Hori horrela ez bada, denden barrualdean egingo dugu, eta bezeroak barnealdean aurkitu- ko du eskaintza berezia.

EKIMENEAN PARTE HARTUKO DUTEN NEGOZIOEN ZERRENDA

Askotarikoak dira negozioen ezaugarriak: Ciclos Patxi, Ama- bi haur eta gazte jantziak, Cis- neros tejidos, Durazno, Fede- ropticos Orte, Gamer, Gloss, Gorostidi, Iturbe oinetakoak, Larrutxoko, Stop liburudenda, Ormendi kirolak, Pepi lentzeria, Pottoko puericultura, Xare oi- netakoak, Tximeleta oihal den- da, Ernaitza liburudenda, Main- di optika eta Montse estetika.



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).
Diseinua: Golena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: 

ALIATUAK:  

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan**



Ezama UKEko lehendakaria, Segurado alkatea eta Ostolaza zinegotzia, futbol zelaian egin zuten aurkezpenean. UDALA

Futbol zelaia berritzeko lanak iragarri dituzte

Urnietako Udalak futbol zelaia aldatzeko, atletismoko pista berritzeko eta harmailak estaltzeko egitasmo integrala aurkeztu du. Ia milioi bateko aurrekontua du egitasmoak eta datorren denboraldirako lanak amaituta izatea espero dute

Lide Ruiz Telleria URNIETA
Ostegun honetan, Urnietako Udalaren osoko batzarraldian, egitasmoa bideratzeko onarpena emango diote. Gauzak horrela, lanak maiatzean hasia aurrikusi dute eta, ondo bidean, denboraldia hastearekin batera martxan izango dira belaze berria, harmailak babesteko estalkia eta eraberritutako atletismo pista. Aurrekontua ia milioi eurokoa da.

Zelaia handituko dute, hainbat moldaketa eginez. Futbolean aritzeko gune nagusia eraldatuko dute, noski, baina baita zelaiaren eta atletismo pistaren arteko tartea zabaltzeko ere.

Zelaiak tarte zabalagoa hartuko du, korrika egiteko pista bat kenduko dutelako: 4tik 3 pista izango dira, beraz, aurretik. Horrez gain, futbol zelaiaren ondoan, beroketa eta prestaketa lanak egiteko gune berri bat egokituko dute. Denera, belar artifizialeko eremua 482,7 metro karratuko azalerakoa izango da.

FUTBOL ZELAIAREN ERABERRITZE-LANEN HASIERA MAIATZERAKO AURRIKUSI DUTE

Estalkiaren kasuan, Udalak nabarmendu duenez, harmailak ez ezik, futbol-zelaiaren irteera eta sarrera ere estaliko dituzte. Modu horretan, bi harmailak elkar lotuta geratuko dira. Tartean, Urnietako Kirol Elkartek kudeatzen duen taberna ere estalita geratuko da. Jorge Segurado alkatea hedabideen aurrean egin zuen agerraldian azpimarratu zuenez, berrikuntza horiek guztiak denboraldi berrirako prest egotea espero dute.

Udalak UKE gonbidatu zuen agerraldira eta bertan Iagoa Ezama presidentea begi onez ikusi zituen iragarritako berrikuntza guztiak.

"849.889 euroko aurrekontuko lana da"

JORGE SEGURADO
URNIETAKO ALKATEA

"Futbol-zelaiaren belar artifizialaren aldaketa, beroketak egiteko espazio berri baten egokitzapena eta, egun, babestu gabe dagoen harmailaren estalketa izango dira esku-hartzeko nagusiak. Atletismo pistari dagokionez, egungo lurra egoera txarrean dago eta lanen ondorioz egoera ezin hobean utziko dugu. Garrantzitsua da baliabide onak izatea. Ilusioz beteta gaude



hobekuntza garrantzitsu hori aurrera eramateko, herritarrak izango baitira onuradunak. Proiektu handia da, eta 849.889 euroko aurrekontua du. UKerekin batera lan egin dugu proiektua guztion gustukoa izan zedin, eta oso eskertuta gaude lan-dinamika onagatik eta eskaini diguten lankidetzagatik. Zelaia denboraldi berrirako emateko prest egotea nahi dugu"

"Garrantzitsua izango da UKErentzat"

IAGOBA EZAMA
UKE-KO PRESIDENTEA

"Taldea instalazio berrian lanean hasteko gogo biziz gaude: zelai berria, harmailak estalita partidak ikustera doazen pertsonentzat, taberna ere estalita, korrika egiten duten pertsonen pista berria egiteko aukera... Hobekuntza handia da eta oso garrantzitsua izango da guretzat. 300 lagun inguru gaude klubean, egun, futbol eskolatik hasi eta senior taldeetaraino. Beraz, garrantzitsua da instalazioak



egoera onean izatea kirol jarduerara behar bezala garatzeko. Era berean, ea lortzen dugun oraindik pausoa eman ez duten edo zaltzan dauden gaztetxoak futbolean jokatzeko hastera animatzea. Baita beste talde batzuetan lehiatzen ari diren etxeko jokalariek Urnietara itzul daitezkeen laguntza ere, horrela gure taldeak indartuz eta herriko sentimendua sendotuz".



Urnietako
udala

Ekimenez beteriko urteurrena

Esku bete lanez jarraitzen dute Burdina elkarteko kideak, berriki egin duten agerraldian adierazi dutenez. Iaz buruturiko ekimenen berri emateaz gain, 2026an aurreikusi dituztenak aurkeztu dituzte

Xabier Lasa ANDOAIN

Ez daukate ahaztuta orain 25 urte jaio zela ondare historikoa berreskuratzeko helburuz jaio zen Burdina elkarte, eta efemeridea ospatzeko asmoz aparteko zenbait ekitaldi antolatu dituztela hurrengo hilabeterako gaineratu dute.

2026 urte berezi horri begira aurrera eraman nahi dituzten zenbait ekimen iragarri zituzten.

- Gordelekuko funtsen katalogioarekin jarraitu. Etorkizunean Udalaren esku jarri ahal izatea da azken helburua. Hirugarren urtez jarraian ekingo diote ekimen horri.
- N-I errepideko mugarri zaharraren berriztatzearen bigarren faseari ekin.
- Andoaingo herriaren sarrere-tan zeuden errotulu edo kartelen erreplikak egin, oraindik zehazteke dagoen toki batean jartzeko.
- Ortzaikako karobiaren goiko baranda berriztatu.
- Bagonetarekin egin den moduan, XIX. mendeko errota-makina bat ekartzeko aukera egonik, Gordelekura ekarri, beste herrietan bezala Andoaingen ere izan zen ogibide hori nolakoa zen herritarrei erakusteko.
- Karrikako kioskoa balioan jarri, oraingo egitura berrituz eta elkar-trukerako plaza bihurtuz (liburuak, diskoak, komikiak, jostailuak, bildumazale-tasuna...).
- 25. urteurrena bereziki bi ekimenen eskutik ospatu nahi dute Burdinako kideek.

25. ospakizuna

Modu berezian 25. urteurrenarekin lotuta, bi ekintza nagusi prestatu dituzte. Batetik, taldearen historia eta argazkiak jasoko dituen liburu edo argitalpena. Eta bestetik, Burdina taldearekin lan egin duten pertsonak, elkarteak eta udal-ordez-



Burdina taldeko kideak, bagonetarekin, Extremadura kaleko egoitzan. AIURRI



Karrikako kioskoa eraberritzeko asmoa dute aurten. AIURRI

kariak bilduko dituen ekitaldia antolatu nahi dute. Guztira 150 bat lagun biltzea espero dute, eta hori Ortzaikako karobiaren ekitaldiaren inguruan izatea aurrikusita daukate.

2025ean burututako ekintzak

Hona zenbaitzuk:

- Ate irekien jardunaldia Museoen Nazioarteko Egunean.
- Aingurasutegiko ontziralekuaren bigarren fasea.
- N-Iean mugarri zaharra berriztatzea, Karrikan (449 km).
- Buruntza auzoan: San Roke irudiaren eta ermitaren zaharberritzeak, eta, Ama Kandidaren iturriaren egonkortzea.

- Ortzaika karobian (Goiburua auzoa) bilkura, urriaren 25ean.
- Gordelekuko funtsak katalogatzen eta ugaritzen.
- XIX. mendeko egurrezko bagonetaren berreskurapena eta txukunketa: "Gipuzkoako Arditurri eta Plazaola bezalako burdin-meategietan erabiltzen zen. 50 zentimetroko errailetan erabiltzeko prestatuta, trenbideak baino zabalera txikiagoa du, eta meategietatik burdina ateratzeko erabiltzen zen, normalean meatzarien edo animalien indarra baliatuz. Baskulantea da, eta alde batera edo bestera deskargatzeko sistema dauka".



Charles Chaplin gogoan hartu zuten Basteroko emanaldian. AIURRI

Film ezagunen soinu-bandak entzun ziren emanaldi berezian

Aurreko astean Andoaingo Udal Musika Bandak zinema eta musika ardatz zituzten piezak jo zituen

Xabier Lasa ANDOAIN

"Zineman, soinu-banda arima ikusezina da, emozioa indartzen, atmosfera definitzen eta ikuslearen esperientzia gidatzen duen funtsezko tresna narrati-ba". Printzipio horri eutsi zioten, aurreko igandean, Udal Musika Bandako musikariek.

Mikel Emezabal musikarien zuzendari eta ikuslegoaren gidari lanetan aritu zen. Ikuslegoak, bestalde, Jacobb de Haan, Chaler Chaplin, Ennio Morricone, Nacio Herb Browne eta beste zenbait konposatzaileen lanekin gozatu ahal izan zuen. Guztiak ere zineramako sortutako doinuak ziren, eta kantu bakoitza irudi-sortarekin lotu zuten.

Zuzeneko emanaldiaren zirrara

Adimen artifiziala bogan dagoen garaiotan, zuzeneko entzunaldiaren esperientzia parekazina dela frogatu zuten musikariek. Eta, hala, Emezabal zuzendariak eskatuta, ikusleek oholtzatik bertatik jarraitu zuten kontzertuaren zati bat. Izan ere, kontzertuan, musika zuzenean ikusleak eragiten duen plazera eze-ekin alderezina dela aldarrikatu zuten.

Emanaldi berezia, gogoangarria izan zen, Basterora hurbildu zirenentzat. Emanaldi berezia zuzenean ikusteko aukera izan ez zutenek, aldiz, Aiurri.eus gunean aurki ditzakete emanaldiko hainbat bideo eta argazki-bilduma.



Ikuslegoa musikariengana hurbildu zen kontzertuaren amaieran. AIURRI



Kantari ikuskizuneko entsegua egin zuten aurreko larunbatean, Bastero Kulturguneko auditorioan. AIURRI

"Artista txiki bezain handi dira Kantariko partaideak"

AITOR AGIRIANO KANTARI EGITASMOAREN KOORDINATZAILEA

Lehen aldiz antolatu da Kantari Andoainen. Udalerriko hiru ikastetxeetako ikasleek, larunbat honetan, gustuko kanta dantzatuko eta abestuko dute Bastero Kulturgunean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aurreko larunbat goizean entsegu orokorra egin zuten Basteron. Larunbat arratsaldean jendaurreko emanaldia izango da, auditorioan.

Abiatzear da Kantari Andoainen.

Bai, halaxe da, lehenengo aldiz izango da Kantari Andoainen. Bastero Kulturgunea euskal kantuz eta festa giroz beteko da. Parte-hartzaileak prest daude, entseguak egiten ari dira, azken ukituak ematen eta dena boro-biltzen. Eta, azkenik, larunbat honetan izango da bertako artista txiki baina handi direnen emanaldia.

Ezezaguna zaionari, nola azalduko zenioke zer den Kantari?

Euskal kantuen kultur transmisioa egiten da, Kantariaren bidez. 8-12 urte bitarteko gaztetxoak erreferente dituzten izar horien lekuan jartzen dira, Kantarik horretarako aukera ematen die-lako. Funtsean, euskara, aisialdia eta kultur transmisioa batzen dituen ikuskizun bat da. Zuzenean jarraitzeko aukera egongo da Basteron, eta horrez gain, emanaldi guztiak grabatu eta Aiurri.eus-en ikusgai izango dira.

Entseguan, hainbat partaide urdu-ri daudela aitortu digute. Hori seinale ona da, ezta?



Kantariko Aitor Agiriano. AIURRI

Bai, beti esaten dugu, sabelean sortzen diren tximeleta horiek edota urduritasuna egon beharra dagola. Izan ere, garrantzia ematen diogu, arduratu egiten gaitu, eta konpromiso bat hartu dugu. Funtsean, lana egin delako eta lanaren emaitza ona izatea nahi dugulako gertatzen da hori. Hala ere, hemen ez dugu inor epaituko gaizki dantzatu edo abestu duelako. Ez da lehiaketa bat, eta Basterora ondo pasatzera gatoz.

Ikusleen babesarekin, gainera, seguru nago gure artista txikiak

are eta gehiago handituko direla, eta sekulako emanaldia eskainiko dutela.

Kantari lehen aldiz dator Andoainera, eta aurretik ibilbide bat osatu duzue Debagoienan.

Horixe da. Badira urte batzuk Goiena komunikazio taldeak proiektua abiarazi zuela. Hasieratik helburuak honako hauek ziren: euskara, aisia, kultura eta harremanak sendotzea. Debagoienan indarra hartu zuen, eta denborarekin best udalerrietako ateak ere zabaldu zaizkio Kantariri. Gasteizen hamargarren aldiz egingo dugu emanaldia eta, horrez gain, Beasainen, Lazkaon eta Urretxu-Zumarragan ere aritu gara. Bizkaiko ateak ere zabaldu zaizkigu, eta poliki-poliki bagabiltza Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan emanaldiak egiten.

Andoainen lehenengo aldia izango da, eta akaso, Kantari gelditzeko etorri da.

85 NESKA-MUTIL IGOKO DA OHOLTZARA

8-12 urte bitarteko 85 neska-mutil igoko da oholtzara, guztira, 17 taldetan banatuta. Larunbat honetan arratsalde osora zabalduko da Kantari. Basteron, 16:00tan hasita.

Xabier Ariznabarretak irabazi du Bizenta Mogel ipuin lehiaketa

Ostiral honetan egingo dute sari banaketa ekitaldia, Azkoitiko udaletxeko bilkura areto nagusian

Andoni Elduaen / Aiurri ANDOAIN

Xabier Ariznabarreta andoaindarrak irabazi du 44. Bizenta Mogel ipuin lehiaketa. Azkoitiko Udalak jakinarazi du lehiaketaren aurtengo sarituen zerrenda, eta Ariznabarretak idatzitako *Hosto* lanak jasoko du lehen saria. Gotzon Plaza bilbotarrak jasoko du bigarren saria *Kaiolan aske* lanagatik, eta Iraitz Legarra markinarrak hirugarrena, *Saint Louis-Somone* ipuinagatik.

Aurten, guztira, 34 ipuin aurkeztu dira ipuin lehiaketara, eta, azken aldietan bezala, Iñigo Antsorregi, Yolanda Larrañaga eta Juan Luis Zabala aritu dira epaimahaikide lanetan.

Sari banaketa ekitaldia hurrengo ostiralean egingo dute udaletxeko bilkura areto nagusian, 19:00etan hasita. Udalak gogorarazi du ekitaldia irekia dela eta herritarrak denak daudela ekitaldira gonbidatuta.



Xabier Ariznabarreta. AIURRI

Ariznabarretak eskarmentua badu lehiaketa ezberdinetan. Zizurkilen antolatzen duten Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketan, esaterako, behin baino gehiagotan saritu dute.

Bertsozalea, Kaletxikiko jailetako saioan aritu ohi da gaitzartzaile lanetan.

Abiatzear da Basteron "Zine & Hitz" zikloa

Filmak eta solasaldiak, martxoan, Andoaingo Udalaren Euskara sailaren eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

Zinemaz gozatzeko eta ikusita-koaren testuingurua osatzeko "Zine&Hitz" zikloa aurkeztu du Andoaingo Udaleko Euskara sailak. Saio guztiak Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan dira, 18:30etan hasita.

Martxoak 3, asteartea

"Faisaien Irla"

Segidan, solasaldia Asier Urbietazuzendariarekin.

Martxoak 10, asteartea

"Laburbira"

Euskal Herriko laburmetraien zikloa, Tauparen eskutik.

Martxoak 24, asteartea

"Itoiz, udako sesioak"

Solasaldia, Larraitx Zuazo zuzendarietako batekin.



Telmo Irureta. WIKIPEDIA

Martxoak 31, asteartea

"Animo"

Solasaldia Alex Tello zuzendariarekin eta Telmo Irureta aktore nagusiarekin.



Urnietako Lategi bailarako Izarre baserrian hazi eta hezi zen Jon Garmendia. AIURRI

"Ulhaintsak bezala, nik ere negar egiteko, zerbait adierazteko beharra sentitu dut"

JON GARMENDIA IDAZLEA

'Ulhaintsaren negarra' poesia liburua argitaratu berri du (Urnietan, 53 urte). Azken hamarkadetako bizipenak bildu ditu bere lehen liburuan

Zuraide Etchemendy SARA

Lapurdin dago Arburuko borda, Saran. Urnietako Lategi bailaran Izarre baserria. Urnietan hazi eta hezi zen Jon Garmendia, Saran bizi da egun. Deserriak irentsi zuenetik gaur arte bizi izan dituenak jakinaraztea erabaki zuen duela ez aspaldi, eta 'Ulhaintsaren negarra' poesia liburua da emaitza. Maider Ziaurritz eta Garbiñe Larrea urnietarrak lagun izan dituen proiektua. Bizitza bateko negarra, oihua.

Zer da ulhaintsa?

Aterpetu ninduten etxean beste euskara bat erabiltzen zutela jabetu nintzen azkar. Ilintxa, ilaintxa, ulintxa, antzeko zerbait ahoskatzen zuten, eta jabetu nintzen nire sorterrian zapelatza deitzen genuela hegazti hori. Hitz, edo izen hori, ez nuen sekula entzun eta gordeta eduki dut orain arte. Nik zapelatzarekin halako harreman berezia neukan, Izarre baserrian, aitzak goldearekin lurra mugitzen zuelarik zapelatza adi egoten zen, zizareak eta bestelako bazka bilatzeko. Beti egoten da begira, zer suma, eta janari bila.

Eta negarra?

Soinu berezia du zapelatzak, haurren edo umeen negar moduko bat esango nuke. Adarra-mendi arranoen mendia ere bada, arroka artean kabiak zituzten gu ume ginela, eta inguru guzti horretan beti egon izan dira hegaztiak. Gure baserritik hurbil ere bai, noski, baita putreak ere. Orain ez dira asko ikusten. Zapelatza hegazti bakartia da, bakarrik ibiltzen da, beti zelatan. Zuberoko etxe hartan ezagutu nuen nire euskara eta haiena zeharo desberdina zela, gauza berdina izendatzeko modu desberdin bat genuela, eta adibidez zapelatza ulhaintsa zen han. Zapelatza oso gustuko dudana txoria da, arranoa bezala. Arranoa azalean tatuatua dut eta zapelatza bihotzean, gainera bere negarraren fabula ere ikasi nuen eta ipuina kontatzen dut liburuan.

Zein da, bada, fabula hori?

Etxeko jaunak azaldu zidan idorte handi bat egon zela, luze jo zuen lehorte bat. Animalia guztiak erabaki bat hartzeko bildu eta txoriei ur bila joateko eskatu zieten, haiek urrun bila zezaketelako, baina zapelatzak ezezkia esan omen zuen, eta ura bilatzeari uko egin, bertan gertatzea nahiago zuela. Idortea

bukatu zenean ulhaintsa zigortu egin zuten, lehorrak diren hilabetetan urrik gabe utzi zuten. Ulhaintsak negarra egiten du egarri delako. Hori da nik ikasi nuen fabula. Bere oihua da, zerbait adierazteko egiten du negarra, eta nire negarra hori da, zerbait adierazteko negarra. Nire azken hamarkadetako bi-dearen oihua edo negarra.

Negar horretan jasotakoak ze denbora epekoak dira?

Bide luze bat izan da. Kaieran gauzak apuntatzeko joera izan dut beti, eskuz idazten dut, eta bizipen horiek poema batekin lotu izan ditut tarteka, baina kutxa zaharretan gelditu dira gordeta. Izan daiteke Madrilen, Parisen, Tolosako kartzelan (Okzitania), Bordelen... Idatzia pilatu zaizkit. Kantugintzan murgildu izan naiz nagusiki, zehazki ez dakit baina 250 abesti idatzi ditudala esango nuke, Etxakiten hasi eta Esne Beltzaraino 30 urtez, baina kantu bihurtu ezin ziren idatzi pila bat neuzkan hor zehar. Bizipen horiek kontatzeko beharra dudala sentitu dut, eta 'Ulhaintsaren negarra' liburuan bildu ditut.

Zergatik behar hori?

Hau ez dut asmatu, gertatu egin da. Ez banu kontatuko nire inguru hurbilak baizik ez luke jakingo zer bizi izan dudana, eta haiek ere detaile askorik gabe; egia da biluztu egiten naizela edonoren bistara, eta askotan galdetu diodala nire buruari «zertarako?», baina egin behar nuela konbentzitu hartu nuen erabakia. Nire bizipen berberak ezagutu dituen jende pilo eza gutu dut etxetik kanpo ibili naizen urte horietan, nire aurretik beste asko egon dira gainera, eta gutxi izan dute aukera bizitu dutena kontatzeko. Euskal Herrian bere etxea utzi eta auskalo nora partitu den jende gehiegi izan da, iheslariak, erbesteratuak, deserriatuak, deitu nahi duzun moduan baina etxeko goxotasunetik, familiaratik urrundua izan dira denak, eta hori drama handi bat da. Ez azken hamarkadatan bakarrik, aurretik ere ehunka izan dira, milaka.

Eta non agertzen da poesia?

Poesia umetatik gustatu zait, ikasi eta landu egin dut. Ikastolan euskal kultura eta sorkuntza lantzen zuten irakasleak izan nituen, Lurdes Iriondo, Juxto



"Amaren laguna zen Xabier Lete, eta gaztaro hartan dezente landu nuen poesia berarekin, liburuan egiten dut haren aipamena, nola ez ba". Argazkia Matxonean aterata dago, Iriondo eta Leteren argazkiaren ondoan. AIURRI

Egaña, Antton Jauregi... eta musika nahiz antzerkia jorratzen zutelarik erakarpen handia piztu zitzaidan. Nerabezaroan bertsoekin ausartu nintzen baina nire burua egokiago ikusten nuen idazteko, poesiaren metrika askotan adibidez. Amaren laguna zen Xabier Lete, eta gaztaro hartan dezente landu nuen poesia berarekin, liburuan egiten dut haren aipamena, nola ez ba. Frantziako Tolosan kartzelan nengoela gutunak idatzi zizkidan, eta haietako bat hortxe agertzen da. Odisea luzean poemak bata bestearen atzetik idatzi ditut, ez egunero noski, baina bai zerbait barrua mugitu zidanean, eta idatzi horiekin denekin zer egin edo nire antolaketa txar horretan, hasieran Andoni Urbistondo lagunari eskatu nion Maider Ziaurritz zuzentzaile eta itzultzailearekin harremanetan jartzea, Geroxeago Garbiñe Larreari, baina argi neukan Maiderrek jaso behar zituela.

Zertarako?

Sentsibiltate bereziko pertsona iruditzen baitzait Maider, eta hizkuntzaren jakinduria eta literaturaren ezagutza egokia duela bestalde; Berria egunkarian egindako lan ederra da horren erakusle, edo gaur egungo bere lanean egiten duena bestela. Gordeta neukan paper pila hari buelta batzuk emateko eskatu nion, orden bat emateko, irakurtzeko zer neukan jaso, ea zerbait ikusten ote zuen berak han. Argiki esan zidan idatzi horietan liburu bat behintzat

bazegoela. Beste urnietar bat ere oso garrantzitsua izan zen liburu hau argitaratu behar nuela erabakitzeke, Garbiñe Larrea, eskarmentu ederra du berak, argitaratu duen liburu bakoitza arrakastatsua da, milaka ale saltzeaz gain dibulgazioan sekulako lana egiten du, eta lekua egiten diot beti bere hausnarketa bakoitzari. Poema asko oso intimoak dira, oso nireak, eta zalantza asko izan dut, jendeak horiek jakin behar ote dituen ala ez, baina kontatzen ez dena existitu ez balitz bezala denez, kontatzea erabaki dut.

Urte asko dira, bizipen asko... ez zen erraza izango bizipen guzti horiei zentzu bat ematea, ezta?

Zaila egin zaidana da duela ia 30 urteko poemak kokatzea, haietan nire burua ezagutzea. Duela 20 bat urte Parisen nengoan, eta orduan gatazka politikoa edo dena delakoa ez zela inoiz bukatuko uste nuen, ez nintzela berriro etxera itzuliko, orain dena aldatu da eta desberdin ikusten dugu dena. Garai zailak, bakardadeagatik, fisiko ki ez nengoelako ondo, agiriaren faltagatik, diru eskasiagatik edo beste edozein arazo neukala idatzitakoak orain irakurrita, kostatzen egiten zitzaidan nire burua

"POEMA ASKO OSO INTIMOAK DIRA, OSO NIREAK, ETA ZALANTZA ASKO IZAN DUT"

ezagutzea, poema ilunak ziren gainera, bata bestearen atzetik idatziak. Zaila da hori kontatzea, horrekin guztiarekin liburu bat osatzea, eta halakoren batek egon behar du baina ez denek, bizi izan dudana odisean gauza ilunak asko daudelako baina baita argiak ere, baikorrak, onak. **Orduan idatzitakoak jaso bezala mantendu dituzu liburuan?**

Bai. Nire idazkera ezberdina da egoera eta unearen arabera, aldatzen joan da, hitz berriak agertu eta beste batzuk agortu, baina poemak bere-berean utzi ditut, bestela nire buruari iruzur egin eta bizitakoaren aurka egitea litzateke. Adibidez, lehen aipatu dudana Xabier Letek Lurdes Iriondoren heriotzaren inguruan idatzi zidan gutuna da liburuan jarri dudana, eta nik 'Poetaren gaua' idatzi nuen orduan, ez dakit berari erantzun bat emateko izan zen edo bere hitzak baliatuz nik kartzela hartan bizi nuena ulertzeko ote zen. 2006 urteaz ari naiz, 20 urte dira, denbora asko, eta eduki dut nire poema horretan hitzen bat aldatzeko tentazioa, baina orduan idatzi nuen bezalaxe jasotzen da liburuan.

Zeri buruz dira poemak?

Denetarik dago, urruntasuna, distantzia, bakardadea, samina, etxemina, jendemina, baita poza ere. Gazte garaia, baserrikoak, konpromisoak hartu nituen garaioak... Erbestea eta deserriaz mintzatzen gara unibertsaliki, baina jende askok uzten du bere etxea motibo desberdinengatik,

eta hor dago haustura eta min berdina bat. Etxea uztean zulo bat uzten duzu gainera, ez da zuk zuloa eramaten duzula soilik. Haiek zu gabe jarraitu behar dute, eta norberaren abentura hor hasten bada ere haustura asko sortzen dira atzean. Zuri galdera asko sortzen zaizkizu, ordurarte ezagutu duzunetik urrun nola biziko zaren, ohituko ote zaren errealtate berri horretara, zenbateraino hautatu duzun zuk gertatu zaizuna, lagunak gabe, familia gabe biziko ote naiz? Etxera bueltatuko ote naiz? Niretzat odisea luze eta mingarria izan da etxetik urrun egon naizen denbora hau guztia, eta odisea hori kontatzen saiatu naiz.

Deserrian sormenerako tarterik bada?

Inoiz baino gehiago. Egoera txar edo tristeetan sentikorrango zaude. Une horietan idazteko ohitura daukat eta eskuz, ordenagailuen garaia berandu harraipatu bainau. Une horretan ezin banuen idatzi, oroimenean gordetzen nuen, eta aukera bilatu dudanean, ttak, idatzi. Ez-leku asko bizi izan ditut. 'Hemen nago, baina etxea bakarra da', pentsatzen duzu. Bakarren batek esango du: 'baina ez zaude zure herritik hain urrun'. Ondoan egonda egon zaitezke urrunen, batez ere hurbiltzeko debekua baldin baduzu, eta hori ez da samurra. Lehen ere esan dut, euskaldun askok bizi izan dute deserria, urruntasun forzatua, etxeratzeko debekua, eta ez bakarrik azken mende erdian, eta badirudi talde edo multzo bati buruz mintzatu zaitezkeela, baina hor bakoitza egon da eta dago bere gauean (Letek esaten zuen bezala), bakoitzak drama bat bizi izan du. Begian izoztu zaizkizu etxeko lekuak, herriko inguruak, pertsonak, baina haiek gabe biziko zara zu, horrek denak nola egiten duen aurrera ikusi gabe, eta zu ez zaude, ez zara egongo, zutaz ahaztuko dira beharbada. Angustia erabateko bat bizitzen da etxetik kanpo, neri hala gertatu zait. Beste batek beste modu batean biziko du beharbada. Eta zu ez zauden

"ANGUSTIA ERABATEKO BAT BIZITZEN DA ETXETIK KANPO, NERI HALA GERTATU ZAIT"

etxekoak zahartzen doaz, eta jabetzen zara hilko direla zu haiekin egon gabe. Horrela joan zen gure aita, adibidez. Deserrian, dena den, ez da dena txarra. Nik lagun berriak egin ditut, familia berri bat sortu. Zauriekin, minarekin bizitzen ohitu behar duzu, zurea ez den tokian baitzaude beti. Liburuan bada poema bat, 'inportazioko autoa' izenekoa. Auto hori ekarri eta denak begira egoten dira. Nik metafora bat egin dut, eta antzeko egoera islatu, bizi izan naizen tokietan jendeak bazeki-lako nor nintzen. Baita herriko jendarmeeke ere.

Noiz erabakitzen duzu liburu argitaratzea?

30 urte abestiak idazten eman ditut. Kazetari gisa aritua naiz lanean. Azken 14 urteak GARA egunkarian zutabegile eta hainbat artikulu idazten. Abestiena alboratu gabe ere beste zerbaiti heltzeko gogoia piztu zait, eta poesiara bildu naiz pixkanaka. Baina argi dut beste ezeren gainetik idazlea naizela, eta horregatik ireki nahi nituen ate berriak.

Zer izan da zuretzat zailena?

Nire bizipenak publiko egitea, ez delako fikzioa. Kontatzen dudana gertatu egin da. Nire begietatik, baina gertatu egin da. Jende askoren inguruko bizipen errealeak dira. Biluztu eta gertakari batzuk kontatzea erabaki dut. Nireak dira. Liburu bat, eta horrelako liburu asko behar dira, ez baita apenas kontatu. Sortu zait beldur bat: 'zer esango dute nitaz', edo 'ez al dut nire familia ahulduko?'. Egin behar nuela pentsatu nuen, eta egin dut.

Liburuko bukaera ere berezia da.

Bai, kantu bat da. Ezaguna egin den kantu bat gainera, publikatuta zeuden abestietatik urrundu egin naiz, ez neukan haiek liburuan jartzeko asmoa, edo izan liteke ez neukala abestiak nireak direla esateko gogoia, jendearenak baitira gaur egun, baina liburu amaiteko duela 16 urte argitaratu genuen «Go-goak» erabili dut: 'Emaidazu berriro ongi etorria'. Nire ongietorria, itzulera amestuz.

ELKAR argitaletxeak argitaratu du zure liburu. Eta euskarazko argitalpenak egiten diren epizentrotik, Durangoko Azokatik urrun. Zergatik?

Beldur eszenikoa dudalako, bertigoia. 1998an egon nintzen —>

—> han azken aldiz, eta halako toki jendetsu batera joateak beldurra ematen dit oraindik. Ez da, noski, Durangoko Azokaren aurkako ezer, halako toki jendetsu eta arrakastatsuak beharrezkoak baititu gure euskarak, diglosia garaiotan mainstream diren kontuak behar ditugu euskaldunok. Jende asko pilatzen diren tokiak nahasmena sortzen dit, ez baitakit aspaldi ikusi ez dudana jende batekin zertaz edo nola hitz egin ere, adibidez, tira, Esne Beltza taldearekin ere pasa izan zait azken kontzertu jendetsuetan, burua nahasia neukala sentitutakoa eta hitz egindakoa-ren artean. Beraz xumeki, nahia- go izan dut urte hastapen hone- tan argitaratu, udaberri atarian, ulhaintsa ere oraintxe hasten baita abesten. Nik bizi izan dudana haustura bizi izan duten hainbat

lagunen herrietan ere aurkeztu nahi nuke liburua.

Zerk asebeteko zintuzke?

Ezusteak hartzeko prest nago, gai hau ezagutzen ez duen jendearen aldetik, adibidez, badakit gai honek juzkuak eta aurre kondenak izan dituela, baina sakon ulertu eta aztertze-ko gai bat da, sufrimendu iturri bat izan delako. Bihotza irekita idatzi dut hau dena, sentitu dudana dago lerro horietan, ikusi dudana, ondokoek bizitu dutena, edo nik sumatu dudana, liburuan sufrimendu eta maitasun asko dago, hala iruditzen zait eta irakurri dezazula, besterik ez dizut esango.

Eskaintza berezi bat egin duzu.

Bai, amari. Laura Martinez Abando. Bera da nire etxea. Ama batek ekarri gaitu denak munda- ra, «oinazen erdian mundurat

eman ninduzun; biziaren grazia lehenik, gero hoinbertze maitasun, berant jakin dut, ama mai- tea, zendako eman dautazun.» Xalbadorrek esan bezala. Gure amaren ama Chateau de Loire- en egon zen 3 urtez, Frantziara erbesteratu behar izan zen fran- kismo garaian. Bere aita kar- tzelan egon zen, hau ere fran- kismoak zigortuta. Errepubli- karrak ziren eta asko zigortu zituzten, baina ama ez da inoiz gorrotoarekin bizi izan. Beti egin du aurrera, barrutik dau- kana ematen, jendearekin en- patia izanda, inor epaitu gabe, denekin konpontzen saiatuta, samurtasunetik eraiki du bizia. Itzuli naizenean nire aita hilik baina ama bizirik dut, bera dela nire etxea aitortu diot liburuan, ez zekien ezer, aurkezpen egu- nean jakinarazi nion, asteartean.

Iheslariaren giltza

Etxeko atea azken aldiz itxi, eta bazoaz.

Presaka zabiltza, urduri zaude.

Begirada bat etxe atariari, zure bizitzaren testiguari.

Hazten ikusi zaitu berak, ahazten ikasi behar duzu zuk, aurrerantzean

bera bezain isilik ibiltzen.

Inoiz ez bezala begiratzen diozu, urteetako maitasuna so horretan kondentsatuz, amultsu.

Baina...

atea gakotu duen giltzarekin zer egin?

Hortxe galdera!

Eskuetan duzu erreminta txikia, behakoa ematen diozu zalantzak bizkarrezurra hozitzen dizun bitartean.

Bi aukera dituzu:

sarrailan ezarrita utzi, etxeko norbaitek erabil dezan, edo zeurekin eraman.

Munduko azken puntan

oroit dezazun

oraindik zure zain dagoela berririo ireki behar duzun atea.

** Liburuaren kontrazalean ageri den poesia da.*

SAHARAREN aldeko BERTSO SAIOA



Maider Arregi
Oihana Iguaran
Joanes Illarregi
Aitor Mendiluze
Maddalen Arzallus
Aitor Etxebarriazarraga

Gai jartzailea:
Imanol Artola "Felix"


Andoaingo
Bastero Kulturgunean
Martxoaren 1ean
12:00etan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats
8.00€

Antolatzaileak



Laguntzaileak



NIRE USTEZ

GARBIÑE LARREA URNIETA

Enpazu

Neska zahartuta ezkondu zen gure amona Baxili eta ezkonduen arteko gauzak nola izaten ziren jakitera, kontseju eske, joan omen zen Izarrera; hango etxeakoandre Joxepak bai baitzuen aholku onak ematearen sona. Familia osatu zuen Baxilik eta haren ondorengo garenok beti izan dugu esker onezko Izarrerenganako mira.

Gauzak nola diren, 2023ko apirilean Artefaktua saiorako elkarrizketa grabatzen ginen Donibane Lohitzunen Jon eta biok. Izan ere, Ganorexia lanari buruzko iruzkina egingo zuen irakurle bat behar nuen eta gutxi iruditzen zitzaizkidan bera baino egokiagoak. Atsedean une batean, kafe bana aurrean genuela, Ilaski Serrano eta biok xaxatzen hasi gintzaizkion; ea berak noiz

argitaratu behar ote zuen bere liburua, gu zain geundela, irakurtzeko gogoz.

Ez zuen ezustean hartu gure eskea eta hogeit bat urtean han eta hemen idatzitako materialak bazituela aitortu zigun baina horiek antolatzen hasteko gauza asko falta zituela. Gogoia dagoen lekuan denbora atera egiten dela edo halako lerdokeriaren bat bota niola uste dut baina berak bi hitz esan zituen: Maider Ziaurritz. Inork bere lanetan eskua sartuko bazuen eta edizio lana egin, pertsona hori bera zela.

Inondik ere espero ez nuela, hara nola, etxera eginkizun batekin itzuli nintzen. Maider konbentzitu behar nuen eta Jonengana eraman, horixe zen tratua. Ez zegoen B planik, Jonek oso argi zituen ideiak. Espero gabeko seinale

eta kasualitateei esker, hemen esplikatzeko luzeegiak direnak, Maiderren baiezkoa lortu eta urte hartako San Antonio egunean kafea hartzen ginen berriro Donibane Lohitzuneko plazan.

Hor hasi zitzaigun errebueltaz beteriko bide bat. Edizio lanak erabakiak hartzea esan nahi du eta noiz behinkako krisiak tarteko Maiderrek bere lana fin egin zuen, denok bagenekien bezala. Liburu bat egitearen atzean pauso asko daude ordea eta buruan idaztea

XAXATZEN HASI ZEN HONEK AMAITU DU AKUILUAREKIN ERAGITEN

besterik izan ez duenak ikusten du gerora zer nolako prozesua bizi beharko duen. Argitaletxe hau edo bestea, zenbatekoa egin tirada, azala nork eta nola, tipografia, nolako aurkezpena eta hedapena egin... Erabaki txiki asko hartu beharreko kate bat dago hor. Horregatik, xaxatzen hasi zen honek amaitu du akuiluarekin eragiten. Testua erabat Maiderren eskuetan zegoenean, bestelako logistika hau kudeatzen laguntzea egokitu baitzait.

Liburugintzan eskarmentu pixka bat izateak baliatu dit Joni lagundu ahal izatea. Liburuari begiratuta baiezkotan nago, lagundu diodala. Bera etorri zitzaidan kontseju eske eta aholku onak eman izana espero dut. Hara nola gure familiaren zor

transgenerazionala pagatu ahal izan diodan Izarreri. Urola aldean enpazu esaten diote eta erabiltzeko modukoa iruditzen zaidalako eta Jonen gustukoa delako ekartzen dut lerro hauetara, enpazu dudalako pagatzeko handiegia zirudien zorra.

Zalantzaz beteta hasi zen bidea amaitu zaigu liburua esku artean izanda. Liburu hori eskura, non eta Urnietan bertan, Jonek berak eman ahal izan zidanean ere ulertu nuen amaitu zaigula beste bide bat. Goza ezazue liburua, lan bikaina da eta.

ZALANTZAZ BETETA HASI ZEN BIDEA AMAITU ZAIGU LIBURUA ESKU ARTEAN IZANDA

NIRE USTEZ

MAIDER ZIAURRIZ URNIETA

Migrazioa

Ulhaintsaren negarra poema liburua Jon Garmendiak Zuberoan entzundako ipuin batekin hasten da. Ulhaintsa, mirua, hegazti aski ezaguna da gure lurretan, eta, berez nahiko espezie soziala bada ere, askotan ikusiko dugu bakarrik zeruan, marru moduko hots bat ateratzen duela.

Negar egiten duen miruaren ipuina metafora bat da, Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorioz bere herria atzean utzi eta babes bila deserrira joan behar izan zuen gazte euskaldun batena. Gertaera hark piztutako sentimenduak idazteko gai bihurtu zitzaizkion kezka politikoa ez ezik idazle sena ere bazuen gazte hari. Horregatik, distantzia, herrimina, familia, maitasuna, bakardadea eta

halako gaiak dira nagusi poema hauetan, jakin gabe ere segur aski honelakoxe asmo batekin idatziak horietako asko: bizitza tupustean aldatu beharrak barruan sortutako aztoramenduari leku egitea, eta, hala ere, ziurgabetasun horretan edertasuna bilatzea, aurrera egiteko helduleku gisa.

Liburuan kontaktzen dena historia pertsonal bat da, baina ez dago asmo horrekin idatzia. Une eta toki desberdinetan sortutako poemak dira, hari bati jarraitzen ez diotenak, helburua ez baitzen liburu bat idaztea, baizik eta une bakoitzeko aldarteak, gogoetak, ikusmirak sentiarazitakoa letra bidez kanporatzea, barruko arrangura paperera ekarriz

baretzea, eta, zenbaitetan, are hitzekin jolas egitea ere, ariketa estetiko gisa.

Liburua, beraz, han-hemen idatzitako piezekin osatutako collage moduko bat da, baina ez dira bizitza baten txatal solteak. Elkarren segidan jarrita, historia argi bat kontaktzen dute, urte luzeetan bizi izandako gorabeheren kontakizun pertsonal bat harilkatzen dute, eta, aldi berean, historia kolektibo bat ere badira, herri honetako beste hainbat eta hainbat jendek pasatu dutenaren lekukotasun bizi bat.

HERRIMINA, FAMILIA, MAITASUNA, BAKARDADEA ETA HALAKOAK NAGUSI DIRA POEMA HAUETAN

Amarrurik gabe, artifizio ulergaitzetan galdu gabe, poema gordinak dira, zintzoak eta zinezkoak, eta horrek egiten ditu eder. Ideologiaz harago dagoen zer unibertsal bat transmititzen dute, bihotzak elkartzen dituen, minaren hizkuntzak, mutur batekoa eta bestekoa izanik ere, batzeko ahalmena du eta. Hemen ez dago heroikotasunik, ezta epelkeriarik ere, zirkunstantzia baten erretratu garratz eta poetiko bat besterik ez.

Poema batetik besterako bide horretan, sarrera, korapiloa eta amaiera egituraketa klasikoa aurki dezakegu. Zorionez, historiaren amaiera ez da fikzioan soilik gertatzen den gauza bat, baizik eta, kasu honetan, errealtatearekin

bat egin duen kointzidentzia liluragarri bat, liburua prestatzen ari ginela jakin baitzuen Jonek joan zenetik bizi izan duen odisea amaitzeaz zela eta berriz zeharkatu ahal izango zuela hainbeste maite duen baserriko atea.

Alegia, migrazioaldi luze baten ondoren, ulhaintsa hemen dugula berriz ere bueltan. Ohartuko zineten, agian, azkenaldian zein dotore dabilen hegan bazter hauetako lursailen ganean.

POEMA GORDINAK DIRA, ZINTZOAK ETA ZINEZKOAK, ETA HORREK EGITEN DITU EDER

Eski edo snow egiteko irteera, Luz Ardidenera



Zanpatuz mendizale elkarteak, Udalaren laguntzarekin, eski-irteera antolatu du. Irteera eguna martxoaren 14a da. Goizeko 06:00tan aterako dira kiroldegitik eta itzulera iluntzeko 20:00tarako. Bidaiaaren prezioa 25 eurokoa da eta bidaia eta forfaita, 60. Bidaia, forfaita eta esku materiala, berriz, 75 euro. Zanpatuzeko kide ez direnek 5 euro gehiago ordaindu beharko dute. Izena emateko e-posta: zanpatuz@gmail.com.

Izena emateko epea martxoaren 2an amaituko da. Hori bai, gutxienerako taldea osatu behar dela adierazi du Zanpatuzek: “Bidaia aurrera aterako ahalko izateko 30 bidaiari eta 20 alokairu bete beharko ditugu gutxienez. Edozein arrazoiengatik bidaia bertan behera geratuko balitz dirua bueltatuko da”.

Intxaurdiren aurka ariko da Euskalduna, Ubitarte zelaian

Emakumezkoen gorengo erreional mailako igoera-ligaxkan hiru partida jokatu ditu Laski-barren taldeak eta garaipena, berdinketa eta porrota lortu ditu. Azkena, Usurbilen izan zen (2-1). Larunbatean, arratsaldeko 18:00tan hasita, hiru puntuak lortzen ahaleginduko dira Intxaurdiren aurkako partidari. Eta hurrengo asteburuan Anti-guoren aurka ariko dira.

Lautik lau partida idabazi ditu Leizaran Brikogoros taldeak

Jubenil mailako emakumezkoen taldeak, ligaxka berrian, lau partida jokatu eta beste hainbeste irabazi ditu. Horrenbestez, multzoko lehena da eta asteburu honetan bosgarren garaipena jarraian eskuratu nahi du. Igan-dean jokatuko du Ordiziko Majori kiroldegian, eguerdiko 13:00tan hasita, Leizea taberna-ren aurka.



Representaciones Justino Ganbara junior mailako taldea, aurreko asteburuan. AIURRI

Junior mailako taldea sailkapenaren gaikaldean da

Lehen itzulia amaitu berritan, lidertzan da Easo Basket taldearekin berdinduta

Erredakzioa ANDOAIN

Junior mailakoen partaidetzako ligan gozatzen ari da Andoaingo saskibaloia taldea. 4. multzoan lehiatzen ari da eta, lehen itzulia amaitu berritan, lidertzan da Easo Basket taldearekin berdinduta. Aurreko asteburuan Allurralden Zarautz garaitu zuten

(79-38) eta asteburu honetan Errenterian ekingo diote bigarren itzuliari. Aurrekoan Ganbara nagusitu zitzaion, Andoainen jokatutako partidari (83-55).

Kadete mailako nesketan, Plastigaur Handi taldea ere lidertzan da lehen itzuliko partida guztiak irabazita.

SASKIBALOIA

EMAITZAK

AURREKO ASTEBURUA

79-38 Reprst. Justino-Zast

75-45 Oiarso-Plastigaur KadM

59-09 Goierri-Plastigaur InfM

46-60 Zast-Plastigaur KadN

42-34 Goierri-Plastigaur KadN

41-29 Nutrieskola InfN-Easo

LARUNBATEAN, ALLURRALDEN

OTSAILAK 28, LARUNBATA

09:00 Plastigaur InfM-Isb

09:00 Nutrieskola InfN-Deba

10:30 Plastigaur KadN-Isb

12:30 Plastigaur KadM-Eroibide



Denboraldi bikaina egiten ari dira.



Argazki gehiago Aiurri.eus gunean.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



andoa**INDARRA**
euskaraz

Ansa eta Barrenetxearen artean erabakiko da Masters txapelketa

Larunbat arratsaldean jokatu da finala Hernaniko Galarretan. Finaletik kanpo geratu da, azkenik, Juanenea

Erredakzioa URNIETA

Endika Barrenetxea izango da Imanol Ansaren aurkaria Banakako Kutxabank Masters Torneoko finalean, ligaxkako azken partidaren Aritz Juanenea 30-15 gainditu ostean. Emaitzak ondo adierazten duenez, herna-niarra nagusi izan zen partida erabakiorrean.

Barrenetxea askoz hobeto ari-tu zen sakean baina alderik handiena pilotean izan zen. Askoz gehiago asmatu zuen jo-koa aldatzen eta 17 tanto egin zituen pilotean.



Barrenetxea. ORIAMENDI

Barrenetxeak garaipena me-rezita lortu zuen eta txapela lortzeko hautagaietakoa da. Baina aurrean duena ez da aur-kari samurra izango: Ansa II urnietarra sasoiko dago. Urru-tira joan gabe Banakako Kutxa-bank Masters Torneoko partida bakoitza erakustaldi bana zan da.

Ansa II.a, Barrenetxea IV.a, Azpiroz, Juanenea, Jabalera, Ezkurra II.a, Aldabe eta Larraña-ga pilotariekin abiatu zen txapelketa. Bidean, bi bakarrik geratu dira. 2023an, adibidez, euren artean jokatu zen finala eta Ansak irabazi zuen. Elkar ezagutzen dute sobera ere, beraz, detaile txikietan egon daiteke garaipena.

Aurreko urteetan gertatu ohi den bezala jendetza espero da larunbat arratsaldeko finalean.



Ikastetxeetako ordezkariak, Kirol-itunaren sinadura-ekitaldian. AIURRI

Eredu bateratua sustatzeko Herri-Ituna

Eredu bateratu, hezitzaile, inklusibo eta komunitarioa izatea defendatu dute, Andoaingo Udalaren eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

Aita Larramendi Ikastola, La Salle Berrozpe ikastetxea eta Ondarreta Herri Eskola "An-doaingo Eskola-Kirola eredu bateratuaren aldeko herri ituna" izeneko hitzarmena sinatu zuten. Haiei atxikimendua adierazi zieten alderdi politikoetako eta herriko kirol elkarteetako or-

dezkariek. Udalak muina zein den azaldu du, ohar bidez: "An-doaingo Udala eta herriko hiru hezkuntza zentroak elkarlanean ari dira Eskola Kirolaren eredu bateratu, hezitzaile, inklusibo eta komunitarioa eraikitzen. Eredu berri honek Eskola Kiro-la hezkuntza-prozesuaren parte integrala dela aitortzen du".



MASTER CUP

Emozioa azkenerarte, binakako txapelketan

Asteasun, aurreko asteburuan, Ibarrola-Erasun bikoteak nahi baino gehiago sufritu zuen sailkapenaren gaialdean sendotu dituen puntua eskuratzeko. Zizurkilgo atzelariak aginte-makila hartu zuen, partida osoa aurretik eman zuten eta, hala, 21-9raino iritsi

ziren markagailuan. Ruiz de Infante-Mendizabal bikotea, orduan, berpiztu eta 21-16raino gerturatu ziren. Emaitzari buelta eman ahal izateko desabantaila handiegia pilatu zuten eta, azkenerako, amore eman behar izan zuten.



Kirol talde ugari hurbildu zen ekitaldira. AIURRI

OTSAILAK 28

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

GOIKOETXEA V · ESKUDERO VS Aiestaran VII · ZUBIRI

2. PARTIDA (KUTXABANK MASTERS TXAPELKETA)

BARRENETXEA IV VS ANSA II

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

EZKURRA II · JUANENEA VS Aldabe · Azpiroz

kutxabank MASTERS TXAPELKETA 2023

FINAL HANDIA

ORIAMENDI

EUSKADI

65 sukia

VOLVO

HAIN GIPIZKOA

Orona

AIURRI



Ostiralean debuta egingo du Superlore taldeak Donostiako Dabadaba aretoan. Argazkian, Endika Garcia eta Jon Mikel Lomeño. AIURRI

“Herriaren oihua da musika eta hori letretan islatu behar da”

ENDIKA GARCIA ETA JON MIKEL LOMEÑO SUPERLORE MUSIKA TALDEA

Musika taldeak “Arrakastaren rave eternalean” diskoa argitara eman du eta asteburu honetan Donostiako Dabadaba aretoan aurkeztuko dute

Lide Ruiz Telleria URNIETA

SuperLore Beterri-Buruntza eskualdean 2025. urtean sortutako musika taldea da. Urtarri-lean haien lehen diskoa kaleratu zuten, “Arrakastaren rave eternalean” izenekoa.

Aurretik, Meltdown eta Kyxo taldeetan aritu zineten, proiektu horiek amaitu ostean zer dela eta erabaki zenuten “Superlore” taldea sortzea?

Endika Garcia. Nahiz eta talde desberdinetan egon, elkar eza gutzen genuen. Euskal Herria txikia da, eta Buruntzaldea are

txikiagoa, eta kontzertuetan ibiltzen garenok elkarren berri izaten dugu. Izan ere, oholtza konpartitu dugu, bakoitzak bere taldearekin jo izan duenean. Testuinguru horretan, Bitorrekin harremanetan jarri nintzen, Kyxo berriz martxan jartzeko, baina ez zen aurrera atera. Hala ere, proiektu berri bat sortzeko gogoia genuen, eta hortik abiatu zen Superlore sortzeko ideia. Biok hasi ginen eta berehala Pablo batu zen, eta beranduago Jon Mikel.

Kaleratu berri duzun “Arrakastaren rave eternalean” diskoak Superlore taldearen abiapuntua markatu du. Nolakoa izan da diskoaren lanketa?

Endika Garcia. Sorkuntza musika parteekatua izan da. Bakoi-tza melodia bat ekartzen hasi zen entseguetara, eta horien bidez, kantak sortzeari ekin genion. Horren ondoren, hitzak sartu genituen, eta letren arteko kohesioa bilatzen saiatu ginen, disko “kontzeptual” moduko bat sortzeko.

Harrera ona izan du diskoak?

Endika Garcia. Inguruko lagunaren artean harrera ona izan da. Pixkanaka kontzertu batzuk lortzen hasi gara, eta bestetik, harremanetan jarri dira gurekin diskoa kasetean ateratzeko, eta hori editatzen laguntzeko ere prest agertu dira.

Jon Mikel Lomeño. Guretzat oso pozgarriak dira proposamen horiek.

Ostiral honetan, Donostiako Dabadaba aretoan lehen aldiz aurkeztuko duzue diskoa jendearekin, gogotsu zaudete?

Endika Garcia. Gogotsu, eta aldi berean, urduri. Denbroa da ez garestia oholta batera igo, eta urduritasun puntu hori sentitzen dugu. Prestatzen ari gara, eta ondo aterako dela uste dugu.

Jon Mikel Lomeño. Bai, gogoia dugu, hainbeste landu duguna aurkezteko eta eskaintzeko.

Estiloari dagokionez, diozue, Post-Harcore, Pop Punk eta Emo Rock-en nahasketa bat da. Meltdown eta Kyxo taldeekin alderatuta, zer-bait berria egin nahi duzue?

Endika Garcia. Harrera ona izan zezakeen musikan pentsatzen hasi ginen, baina azkenean guk nahi genuen musika egitea erabaki genuen. Neurri batean, esentzia mantendu dugula uste dut, baina egia da, Kyxo eta Meltdown taldeekin alderatuta aldaketa handia egon dela. Kyxo taldeak pop kutsua zuen, eta Meltdown taldeak, berriz, Metal kutsua.

Jon Mikel Lomeño. Ados nago, eta badaude ezaugarri batzuk aurreko taldeen antzekoak direnak eta mantendu ditugunak.

Musika egitean zein izan dira zuen erreferentzia nagusiak? Nazioartekoez gain, Euskal Herrian erreferenterik izan duzue?

Endika Garcia. Bai, baditugu. Adibidez; Meison, Etxekalte eta Dena taldeak jarraitzen ditugu, eta uste dut baditugula zenbait antzekotasun. Nazioartean batez ere; Beisment, Title Fights, Viva Belgrado...

Jon Mikel Lomeño. Estatu Batuetako One Street Closer ere bai, erreferentzia nagusiak ingelesak edo estatubatuarrek dira.

"PROIEKTU BERRI BAT SORTZEKO GOGOIA GENUEN, HORTIK SUPERLORE TALDEA SORTZEKO IDEIA"

Abestietan auzi sozial eta politikoez hitz egiten duzue. Zentzu horretan, letrei eta horiek bidali dezaketen mezuei garrantzia handia ematen diozue?

Jon Mikel Lomeño. Bai, guztiz.

Endika Garcia. Bai, niri egokitu zait letrak sortzea, buruhausteak izan ditut, baina orokorrean erronka polita iruditu zait. Egun, musika merkantzia bilakatu da eta abestiak produktu gisa saltzen dira askotan. Guk, aldiz, uste dugu musika herriaren oihu bat dela eta hori letretan islatu behar dela.

Diskoa plataforma guztietan dago eskuragarri, Spotify-en izan ezik. Letrez gain, konpromiso politikoa izateari garrantzia ematen diozue?

Endika Garcia. Bai. Spotify-en kasuan, bi arrazoi nagusi egon dira gure musika bertan ez eskaintzeko. Alde batetik, musika kontsumitzeko modu baten aurkako hautua da. Izan ere, egun, oso era pasiboan kontsumitzen dugu musika, eta hein handi batean, algoritmoak erabakitzen du zer entzun behar dugun. Beste alde batetik, Palestinaren auzia dago, badakigu Spotify-ek zer eskuhartze izan duen, batez ere, armagintzako enpresen finantzaketan. Hortaz, gure erabakia automatikoa izan da. Gainera, ez dugu oztoporik izan gure musika zabaltzeko: ez da arazoa Spotify-en ez egotea. Guk ez dugu desberdintasunik nabaritu, egia esan. Horregatik, jendea animatu nahi dut aplikazio-tik irtetera, ez baita ezer larria bertan ez egotea.

Jon Mikel Lomeño. Hori da, bertatik kanpo ere, maila lokalean gauzak landu daitezke, harremanak sor daitezke beste musika taldeekin, ez da beharrezkoa plataforma horretan egotea.

Endika Garcia. Erabakiak berez kolektiboa izan behar du. Entzuleak Spotify uzteko, musikariok musika kendu behar dugu, bestela ez dugu ezertan eragin-go.

Superlore proiektuaren baitan, zein helburu dituzue talde gisa?

Endika Garcia. Gazteagoa ginenean, lehenengo taldeekin, gehiago amesten genuen. Egun, berriz, nahiko lasai hartzen ari gara abentura berria. Jotzeko gogoz gaude, eta helburua Euskal Herriko lurralde guztietan jotzea da. Bestela, ez dugu helburu edo asmo handirik, etorkizunean kanta berriak sortu nahi ditugu, eta diskoak kaleratu. Kito.

24. korrika æk
**Euskara
gara**
Ahorratzenik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 25ra



korrika.eus



BIDASOATIK HARAGO



JON GARMENDIA

ETA

XABI SOLANO

HITZEKIN ETA MUSIKAREKIN JOLASEAN

IKUSKIZUNA

Martxoak 13, ostirala
19:30. 10 €

Salesiarren areto nagusia. URNIETA

AURRE-SALMENTA:

ANDOAIN: Stop, Ernaitza. URNIETA: Kantoï, Bikain, Matxo.



ekar
fundazioa

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

EUSKARA

ANDOAIN Korrika

AEK euskaltegian eskuragarri daude aurtengo Korrikako petoak.
Extremadura kalea
AEK euskaltegia.

ANDOAIN, URNIETA Errigora

Elikagaiak eskatzeko kanpaina berria.
Errigora.eus
Epea: Otsailak 26-martxoak 18.

MUSIKA

DONOSTIA Superlore

Eskualdeko musika taldearen aurkezpen-kontzertua.
20:00, Dabadaba.
Otsailak 27, ostirala.

URNIETA Bidasoatik harago

Jon Garmendia eta Xabier Solano, Korrika Kulturalaren eskutik. Sarrerak salgai Urrietako Kantoin, Bikainen eta Matxonean. Andoainen, Ernaitzan eta Stopen.
19:30, Salesiar ikastetxea. 10 euro.
Martxoak 13, ostirala.

BERTSOA

ANDOAIN Sahararen alde

Maider Arregi, Oihana Iguaran, Joanes Illarregi, Aitor Mendiluze, Maddalen Arzallus eta Aitor Etxebarrizarraga.
12:00, Bastero. 8 euro.
Martxoak 1, igandea.

ANTZERKIA

ANDOAIN Bakarrizketa saioak

Umorezko kafe saioa: Maialen Sorzabalbere, Julen Pagazaurtundua, Asier Kortabarria eta Lander Varona.
19:30, Bastero.
Otsailak 27, ostirala.

URNIETA Haur antzerkia

"Elara, bidaia bat izarretara".
17:30, Sarobe.
Martxoak 1, igandea.

URNIETA Antzerkia

"Argako erregina".
19:00, Sarobe.
Martxoak 6, ostirala.



Mikel Txopeitia (bateria), Okene Abrego (ahotsa) eta Hodei Esteban (baxua). GAILU

ANDOAIN Gailu zuzenean, Irunberrin

'Bizi eta Ixo!' diskoa aurkeztuko du, lehen aldiz talde formazio berriarekin, izan ere, Mikel Txopeitia (bateria), Okene Abrego (ahotsa nagusia) eta Hodei Esteban (baxua) dira egun taldeko kideak. Afaltzeko aukera izango da tabernan bertan. Mahai erreserbak 943 590 532 telefono zenbakira deituz edo irunberrike@gmail.com e-postara idatzita egin daitezke.
19:30, Irunberri. Otsailak 28, larunbata.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

"Arian komandantea"

Osteguna, 26. 19:00.
Azpitituluak, euskaraz.
Emakumeen borroka
Kurdistango frontean,
Kobane ISISengandik
askatzeko.

El vestido

Igandea, 1. 19:30.
Astelehena, 2. 17:00,
19:30.

Como cabras

Igandea, 1. 17:00.



SINOPSISIA

El vestido


Zuzendaria: Frank Ariza, Jacob Santana. **Aktoreak:** Belén Rueda, Elena Irureta, Belén Eciña, Antonio Molero, Vera Centenera, Santiago Molero, Samuel Sanchez Garcia... **Generoa:** Beldurrezkoa.
Herrialdea: Espainia. **Iraupena:** 75 minutu.

Beldurrezko filma

Dibortzio zail baten ondoren, Alice eta bere alaba Carla etxe zahar batera joango dira beste bizimodu bati hasiera eman asmoz. Hala ere, laster ohartuko dira etxeak istorio ilun bat duela, belaunaldiz belaunaldi errepikatzen diren tragedia-kate bat. Carla, munduan bere lekua aurkitzeko borrokan ari dena, etxean zerbait ondo ez dagoela nabaritzen hasi da. Ama, gero eta paranoikoagoa, beldur da alaba izango ote den inguruan gertatzen diren gertaera arraroen eragilea. Belen Rueda eta Elena Irureta aktore ezagunak pantaila handian ikusteko aukera proposa.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Añer
Añerrek 11 urte bete zituen otsailaren 26an. Zorionak!!! Muxu handia, etxekoen partetik.



URNIETA
Peio
Otsailaren 12an 16 urte bete zenituen. Egund oparoa igaro eta etxekoekin gozatu zenuelakoan, zorionak!

Martxoaren 8ari loturiko egitarau oparoa, Andoainen

Eskaintza askotarikoa da: Antzerkia, musika, dokumentala, manifestazioa, otorduak...

Erredakzioa ANDOAIN

Hainbat eragileren eskutik, ekitaldi-sorta prestatu dute Andoainen, Emakume Langilearen Nazioarteko Egundaren bueltan.

OTSAILAK 26, OSTEGUNA

Dokumentala

"Arian komandantea". Emakumeen borroka Siriako Kurdistango frontean, Kobane ISISengandik askatzeko. Euskaraz azpititulatuta. Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. 19:00, Bastero Kulturgunea.

OTSAILAK 27, OSTIRALA

Kontzertua

Bidenabar taldearen kontzertua, Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. 19:30, Irunberri taberna.

MARTXOAK 1, IGANDEA

Zapien marrazketa

17:30, Gazte Lokala.

"Zure inguruan zer?"

Nerabeek egunerokotasunean kontsumitzen dituzten baliabideen azterketa. 17:00-20:30, Gazte Lokala.

MARTXOAK 5, OSTEGUNA

Karropoteo feminista

Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. 19:00, Plaza Moretik abiatuta.

MARTXOAK 6, OSTIRALA

Emakume famatuen erakusketa

Martxoaren 6tik 13ra.

17:00-20:00, Ludoteka.

Antzezlan

"A peine" DesAires konpainia. Gaztelaniaz. Kultura lansailak antolatuta. 19:30, Bastero Kulturgunea.

Emakumeen afaria

20:30, Goikoplazako karpa. Aurretik eman behar da izena. Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute (676 567 724 / berdintasuna@andoain.eus). Berdintasun lansailak antolatuta.

MARTXOAK 7, LARUNBATA

Estutxeak pertsonalizatzeko tailerra

10:00, Ludoteka (4-7 urte).

Emakumeen bazkaria.

Aurretik eman behar da izena (606 929 697 / zuenaemakumeen-topalekua@hotmail.com). Zuenak antolatuta.

14:30, Oianume jatetxea.

MARTXOAK 8, IGANDEA

Emakumeen irradak

Dantza emanaldia.

12:00, Goikoplaza.

Manifestazioa

12:30, Goikoplazatik hasita. Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta.

Bazkaria

Norberak eramanda, Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. Eguraldi txarrarekin, Irunberrin. Ondoren: Mojito-tertua.

14:00, Espigoia.

Ginkana morea

17:30, Gazte Lokala.

MARTXOAK 13, OSTIRALA

Antzezlan

"Segunda convocatoria". Gaztelaniaz. Zuenak antolatuta. 19:30, Bastero Kulturgunea.

MARTXOAK 14, LARUNBATA

Pala-topaketa

Buruntzaldeko emakumeen VI. pala topaketa irekia. 17:00, Arrate pilotalekua.